



Bertsozale Elkartearen Berripapera



# Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2015eko MAIATZA - 164. zenbakia


## Maiatzaren 9an abiatuko da Gipuzkoa Bertsoan, Txapelketarako sailkapen fasea

74 bertsolarik hartuko dute parte hilaren 9an hasiko den Gipuzkoa Bertsoan saio sortan, irailaren 20an hasiko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sailkapen fasean. Hilabeteko epean 24 saio jokatu dira eta bertsolariek bina saiotan kantatuko dute. 30 bertsolarik lortuko dute Gipuzkoako Txapelketarako sailkatzea.

Irailaren 20an hasiko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa eta abenduaren 20an amaituko da, Donostian egingo den finalarekin. Hori baino lehenago hitzordu garrantzitsua dugu bertsozaleok, maiatzaren 9an martxan jarriko baita Gipuzkoa Bertsoan, txapelketarako sailkapen fasea.

sailkatzea. Dagoeneko, 13 bertsolari daude zuzenean sailkatuta Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako. Horiei Gipuzkoa Bertsoan sailkapen fasean sailkatzen direnak gehituko zaizkie.

Hilabeteko epean, maiatzaren 9tik ekainaren 6ra, 24 saio izango dira Gipuzkoan barrena, 12 herritan. Izan ere, herri bakoitzak bi saio hartuko ditu. Bi itzulitako txapelketa da Gipuzkoa Bertsoan. Bertsolariek bitan kantatuko dute, batean goizez, bestean arratsaldean. Bi saioetako puntuen batuketak emango du bertsolari bakoitzaren osoko puntuazioa eta horren arabera osatuko da sailkapena.



Abenduaren 20an amaituko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. // Galder Izagirre

74 bertsolarirekin abiatuko da Gipuzkoa Bertsoan. Horrez gain, 19 lagunek osatzen dute epaile taldea eta 9k gai-jartzaileena. Puntuaziorik altuen eskuratzen duten 30 bertsolariek lortuko dute udazkenerako

Saioetako sarrerak egun berean salduko dira aretoan. Leihatila 10:00etan eta 16:00etan zabalduko da. Ohi bezala, Bertsozale Elkarteak bazkideek eta 16 urtetik beherakoek prezio berezia izango dute sarreretan, 4 euro saioko. Halaber, eguneko bi saioak prezio berezian ikusteko aukera izango da, eguneko bi saioak 6 eurotan.

www.bertsozale.eus webguneak sailkapen fasearen informazio osoa eta eguneratua eskainiko du. Horrez gain, sare sozialetan Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen profilen bitartez segimendua egingo zaio Gipuzkoako Bertsoan: @GBertsozale Twitterren (#GBT15 traola erabiliko da) eta Facebooken, Gipuzkoako Bertsozale Elkarte Gbe orrian.



**GEMMA URTEAGA**  
Gabiria, 2015-IV-11  
Osinalde sariketa, bertso onenaren irabazlea

Gaia: Gaitz bat diagnostikatu dizute. Horretarako sendagairik bada, baina ez da osasun publikoan sartzen, eta ez duzu ordaintzeko dirurik.

Diagnostikau berri didate gaitz bat benetan krudela nere gainera jauzi berri da berebiziko pastela. Laguntzarikan niregana ez omen da helduko bela aurrera nola demontre egin behar ote dut horrela? Ta txarrena da ni bezalaxe jende asko dagoela.

Beraien mila lege zikin ta beraien hainbeste arau nahi duten dena egiten dute nahi dutena kendu ri-rau. Ta bitartean gizartearen gaitzak tamalez hor dirau. Egia esan behar baldin badut ja lotsagarria da hau gaixotasunak ez nau hil behar gobernuak hil behar nau.

### EGUTEGIA

Herri bakoitzean bi saio jokatu dira egun berean.  
Goizeko saioa: 11:30ean  
Arratsaldeko saioa: 17:30ean

### Lehenengo itzulia

Maiatzaren 9an	Astigarraga
Maiatzaren 10ean	Oiartzun
Maiatzaren 10ean	Idiazabal
Maiatzaren 16an	Antzuola
Maiatzaren 16an	Zaldibia
Maiatzaren 17an	Hernani



### Bigarren itzulia

Maiatzaren 17an	Bergara
Maiatzaren 30ean	Oñati
Maiatzaren 30ean	Zumaia
Maiatzaren 31n	Usurbil
Maiatzaren 31n	Zizurkil
Ekainaren 6an	Ataun

F.C.BAIIENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredakzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argizkiak: Xepelar Dokumentazio Zentrua  
Tel.: (0034) 943 694129 / post@e: komunikazio@bertsozale.eus

# Bi ikastaro eskainiko ditu Bertsoa Unibertsitatean eskolaren bigarren edizioak

Hezkuntza, kantagintza eta bertsolaritza izango dute oinarri EHUko Udako Ikastaroen barruan Bertsoa Unibertsitatean eskolak eskainiko dituen bi ikastaroak. Uztailaren 6tik 10era izango dira ikastaroak Donostiako Miramar Jauregian.

Lehen ikastaroak "Bertsolaritza eta ahazkotasuna Hezkuntza Arautuan" gaia landuko du eta kantagintzan jarriko du batez ere arreta. Hainbat adituk hartuko dute parte eta ikastaroari amaiera emateko performance bat egongo da.

Bertsoa Unibertsitatean eskolak eskainiko duen bigarren ikastaroa bertsolaritzari lotuago dago. "Bertsolaritzaren bidegurutzeak" du izenburu eta, bertan, gaur egun bertsolaritzak dituen erronkei hiru talaletatik erreparatuko diete: ideologia esparrutik, transmisioetik eta ikerkuntzatik.

Bertsoa Unibertsitatean eskola uztailaren 6tik 10era egingo da Donostiako Miramar jauregian. Maiatzaren 4an zabaldu zen matrikula egiteko aukera. Ekainetik aurrera eginez gero, %20 gehiago ordaindu beharko da matrikula.

Bost urtetarako elkarlana adostua dute Mintzola Fundazioak eta EHUko Uda Ikastaroek Bertsoa Unibertsitatean eskola antolatzeke; aurtengoa antolatzen den bigarren aldia da. Lehen edizioan 115 ikaslek hartu zuten parte.

Informazio gehiago [www.mintzola.com](http://www.mintzola.com) atarian aurkituko duzue.

## Bertsolaritza eta ahazkotasuna Hezkuntza Arautuan

### UZTAILAK 6: Ahazkotasuna eta gazteak

- 9:15-10:30 **Ahazkotasuna eta Hezkuntza Arautua.** Inma Muñoa, Ikastolen Elkartea.
- 10:45-12:00 **Ahazkotasunaren lanketa bertsolaritzaren bidez.** Andoni Egaña, bertsolaria.
- 12:15-13:30 **Entzuten ikasi, kontatzen ikasi: ipuingintza eta hizkuntza.** Itziar Zubizarreta, ipuin kontalaria eta irakaslea.

### UZTAILAK 7: Kantagintzaren transmisioak

- 9:15-10:15 **Musika eta kantua txikienetik nagusienetara.** Jaione Eskudero, musikaria eta irakaslea.
- 10:15-11:15 **Kanta kontuetan.** Itziar Irigoien, musikaria eta irakaslea.
- 11:30-12:30 **Ekialdeko euskal kantaera. Transmisioaren erronka.** Marie Hirigoien, ikertzailea eta irakaslea.
- 12:30-13:30 **Mahai-ingurua:** Zer eta nola transmititu kantagintza? Zer eta nola landu Hezkuntza Arautuan? Musika Eskolan? Itziar Irigoien, Marie Hirigoien eta Jaione Eskudero.
- 18:30-20:00 **Performancea:**
  - Kantaldia: **Ainhoa Ansa.** 7 euskal kantu esanguratsu.
  - Bertso saioa: **Uxue Alberdik** eta **Igor Elortzak** kantu bakoitzaren ondotik bertsotan.

## Bertsolaritzaren bidegurutzeak

### UZTAILAK 8: Bertsolaritza eta ideologia

- 9:15-10:30 **Telefonotik mikrofonora.** Andoni Egaña, bertsolaria.
- 10:45-12:00 **Bertsogintza eta ideologia.** Maialen Lujanbio, bertsolaria.
- 12:15-13:30 **Independentziaren zerga. Bertsozale Elkartean esperientzia.** Jexux Murua, Bertsozale Elkarteko koordinatzaile ohia.

### UZTAILAK 9: Bertsolaritzaren transmisioa: zuri-beltzak eta beltzuriak.

- 9:15-10:15 **Bertsolaritzaren transmisioa: argirako bide.** Jon Sarasua, Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta bertsolaria.
- 10:15-11:15 **Belarria soinu.** Joseba Tapia, musikaria.
- 11:30-12:30 **Bestelako bertso eskola bat.** Estitxu Eizagirre, ARGIAko zuzendaria eta bertsolaria.
- 12:30-13:30 **Mahai-ingurua:** Zer eta nola transmititu herri kultura? Jon Sarasua, Joseba Tapia eta Estitxu Eizagirre.

### UZTAILAK 10: Bertsolaritzaren ikerketa esparru berriak

- 9:15-10:30 **Zer dago bertsolarien garunean? Bertsolaritzaren oinarri neuralak.** Kepa Paz, BCBLko ikertzailea.
- 10:45-12:00 **Bertsobota: testuinguruaren eragina poesia sorkuntza automatikoan.** Aitzol Astigarraga, informatikaria eta doktoregaia.
- 12:15-13:30 **Bertso-sorkuntza automatikoa: Azken nobedadeak.** Manex Agirrezabal, informatikaria eta doktoregaia.



laz abiatu zen Bertsoa Unibertsitatean eskola.//XDZ

# 112 gaztetxok hartuko dute parte aurtengo Eskolartekoan

**Ikasturtearen amaiera hurbiltzearekin batera, Eskolartekoaren txanda ailegatzten da Euskal Herri osora. Gipuzkoan eta Nafarroan dagoeneko egin dituzte finalak, eta gainerako herrialdeetan maiatzean zehar egingo dituzte. Aurtengo eskolartekoari ekainean emango zaio amaiera Orion, Euskal Herriko finalarekin eta egun osoko festarekin.**

Euskal Herri mailako ekimena den Eskolartekoa Ikastolen Elkarteak eta Bertsozale Elkarteak antolatzen dute elkarlanean, bertso-eskolen laguntzari esker.

Eskolartekoan bertso eskoletako 15-18 urteko gazteek hartzen dute parte, bat-bateko txapelketan. Aurten, guztira 112 gaztetxo ariko dira kantuan, herrialdeetan eskainiko diren 11 kanporaketa saioetan. Herrialdeetako finalak Bertso Eskolen Egunean ospatuko dira, egun osoko festa egitarauaren baitan.

Herrialdeetako finalen ostean, Euskal Herriko Eskolarteko finala etorriko da. Ekainean ospatuko da Orion, bertan egingo den egun osoko festarekin. Bertsoan herrialde bakoitzeko bi bertsolari aditzeko aukera izango da bertan. Finalista guztiak Gabonetan egingo den negulekua izango dute sari nagusia.

Finaletarako autobusak zein bazkari txartelak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian jarriko dira salgai.



Aurten ere, Orion jokatu da Eskolartekoaren finala.//XDZ

## ESKOLARTEKO ETA BERTSO-ESKOLEN EGUNAK

### NAFARROA

**Eskolarteko finala eta bertso merendua**  
Apirilaren 24an egin zuten Iruñean.

### GIPUZKOA

**Eskolarteko finala eta Bertso-eskolen Eguna**  
Apirilaren 26an egin zuten Irunen.

### ARABA

#### Eskolarteko kanporaketak

Maiatzak 9, Gasteiz  
Maiatzak 14, Zalduondo  
Maiatzak 15, Aramaio

#### Eskolarteko finala eta festa

Maiatzak 23, Kanpezu

### BIZKAIA

#### Eskolarteko kanporaketak

Maiatzak 18, Deustu. 15:00etan Deustuko ikastetxean  
Maiatzak 19, Getxo. 15:00etan Aixerrota institutuan  
Maiatzak 21, Bermeo. 15:00etan Eleizalde ikastolan  
Maiatzak 22, Elorrio. 15:00etan Elorrioko ikastolan

#### Eskolarteko finala eta Bertso-eskolen Eguna

Ekainak 6, Gernika-Lumo, Astran  
10:00-11:00 Eskolarteko idatzizkoaren finala  
11:30ean Eskolartekoaren bat-bateko finala  
Ondoren, bazkaria eta festa.

### LAPURDI, BAXENABARRE ETA ZUBEROA

#### Eskolarteko finala eta Bertso-eskolen eguna.

Ekainak 6, Hazparne. 15:00etan Zinema gelan

### EUSKAL HERRIKO FINALA ETA FESTA

Ekaina, Orio. 11:00etan pilotalekuan.

Bertsolariak: herrialde bakoitzeko bi bertsolari (txapelduna eta txapeldunordea).

14:00etan bazkaria plazan, eta festa: libreko saioan Maialen Lujanbio eta Sustrai Colina, bertso musikatuak, eta "Bi Bala" taldearen emanaldia.





## Puntua jarrita

MALEN AMENABAR

Enbajada ederrean sartu nauzu Joseba. Iñakiren tabernako bertsolariak abandonatuak utzi zintuztedalako ote? Lasai, itzuliko naiz.

Irailaren 22an sartu ginen lehenengoz orain etxetat dugun Santutxuko pisu honetan eta ia konturatu gabe beste bi hilabetetan armairuak hustu beharko ditugu, iraila arte. AIO!

Egia esan, erraz moldatu nintzen hirira. Gustura-gustura. Erraz sartu nintzen kaleko giroan, auzoko dendetan, tabernetan, kuadrilletan... eta Elorri bertso eskolan. Deustuko Elorri bertso eskolan.

Ekografia aipatu duzu, Joseba. Baina lan handia egin izan dute askok ni heldu aurretik. Aspaldi jai zirelako neukan nik bidea eginda. Guraso talde baten lanaren emaitza da. Etxahun Lekue, Ander Elortegi, Amaia Iturriotz... bezalako irakasle ohiak dituzten ikasleekin lan egitea... nola esan. Luxu bat da.

Bi talde ditut gaur egun. Asteartekoa berezia da oso. Ikasle gazteenak ni baino hamar bat urte zaharragoa da, eta zaharrenak nire amak baino bost urte gutxiago izango ditu. Denak bertsolariak. Plazetatik aparte dabilzanak, baina bertsolariak.

Ostegunetakoek, ordea, hanka bat oholtzetan dutela abesten dute. 18-19 urterekin leku ezberdinetako deiak jasotzen dituzte kantatzera joateko. Poliki-poliki, baina badoaz aurrera. Orain Eskolartekoa dela, Bertso Korrikako saiok gero, sariketa ezberdinak bestela... Gainera, atzetik ere talde berriak datoz orain. Iñaki Iturrioz eskola ezberdinetan baitabil lanean.

Ematen saiatzen gara eta ordainetan askoz gehiago jasotzen dugu: Bilbo euskaldun bat.

Baina nik baino askoz gehiago duzu esateko zuk, Oihana Bartra. Ze ondo egiten duzun bertsoan bilbotarra izateko, ezta? Idatzi orain hori entzutean erantzun nahi izan zenuen hori.

## Koplak

### "Eskolatik oholtzara", Bilboko ikastetxeen plaza

Bizkaiko Bertsozale Elkarteak eta Zenbat Gara elkarteak elkarlanean "Eskolatik oholtzara" topaketak antolatu dituzte maiatzaren 13an eta 20an, Bilboko Kafe Antzokian, 17:30ean. Egitasmo honen bitartez, Bilbon "Gu ere bertsoan" proiektuarekin egiten den lana indartu nahi dute: Bertsolariaren transmisioan eragin, bertsolariak gelatik kalera atera, eta Bilbon euskararen erreferentzia lekuetako bat den Kafe Antzokira hurbildu.

Topaketetan ikasle eta gurasoak parte hartzaile aktibo bihurtuko dira, batzuk protagonista zuzen eta besteak ikusle. Horrez gain, bertsolariaren bitartez Bilboko ikastetxeen arteko harremana ere sustatuko da. Ikastetxe bakoitzak gelan presatutako emanalditxo eskainiko du, guraso, lagun eta bertsozaleen aurrean. Horrez gain, musikariak, bertsolariak eta bestelako ikuskizunak ere egongo dira jaialdia girotz.

## Poto-Finixa



Egundoko taldea, udalekuetarako prest!

Bertsozale Elkarte

### Bertsozalea euskarri digitalean jaso nahi?

Berripapera euskarri digitalean jaso nahi baduzu bidali mezu bat [komunikazioa@bertsozale.eus](mailto:komunikazioa@bertsozale.eus) helbidera zure izen-abizenak eta berripapera jaso nahi duzun helbide elektronikoa zehaztuz.

Kontratazioak eta informazio gehiago:



**Lanku**

[www.lanku.com](http://www.lanku.com)

675 716 472



Eneko Dorronsoro-ren dokumentala